LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK
alkate-udal burua
IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN
zinegotziak
JONE ZUBELDIA ALTUNA
ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA
ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ
SABINO SAN SEBASTIAN MURUA
IDAZKARIA
NEREA ESNAOLA GALAN

Lizartzan, 2023ko otsailaren 27an, arratsaldeko 19:00tan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Nerea Esnaola Galanek, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio alkateak, eta hauek izan dira jorratutako

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, 2023ko otsailaren 7ko batzarraren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

HIRUGARRENA.-2022KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ALKATE DEKRETUA BERRESTEA

ALKATE DEKRETUA

Udal honen 2022(e)ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2022(e)ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINTZA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2022-12-31n:			483.146,09
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2022-12-31n:			18.441,10
Aurrekontuko zordunak :	17.579,99		
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	861,11		
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00		
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2022-12-31n: Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	0,00		34.963,86
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	34.963,86		
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00		
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):			

466.623,33

5.- Saldo kobragaitzak:	0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:	0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	466.623,33

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	-77.383,16
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	174.457,76
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	97.074,6

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	0,00
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	145.051,96
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	145.051,96

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

BOZKETA: Aho batez onartu da

LAUGARRENA.- BIDEEN INBENTARIOAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Alkateak azaldu du Sendo Ingenieria enpresak herri bideen inbentarioa egiteko prozesu osoa jarraitu duela, eta behin aurkeztutako alegazio guztiei erantzunda, behin betiko onarpena emango zaiola inbentarioari. Horrez gain proposatu du inbentarioa udalaren web orrian argitaratzea.

Bozketa. Aho batez onartu da bideen inbentarioa.

BOSGARRENA.- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ONARPENA

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETA PROPOSAMENAREN ONARPENA.

AURREKARIAK

1.- 2019ko urriaren 24an egindako bilkuran, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki zuen estatutuen aldaketa jardunbideari hasiera ematea eta hori bideratzeko aholkularitza juridikoa kontratatzea.

2.- 2020ko uztailaren 13an, Batzarrak estatutuak berritzeko proiektuaren lanketa zerbitzua adjudikatu zuen.

3.- Batzarrak, 2020ko urriaren 8an egindako bileran, erabaki zuen estatutuak berritzeko mahai teknikoa izendatzea, guztiak Batzorde Iraunkorreko kideak.

4.- 2022ko martxoaren 14an estatutuak aldatzeko proposamena aurkeztu zen Batzarrean.

5.- 2022ko azaroaren 7an, Batzarrak hasierako onespena eman zion Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketari.

6.- Estatutuak aldatzeko proiektua jendaurrean jarri zen hilabete batez, 2022ko azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (215 zk.) eta kide diren udalen iragarki tauletan argitaratutako iragarkien bidez.

Jendaurrean erakusteko izapidean hiru alegazio idatzi aurkeztu ziren: Berrobiko Udalarena, Larraulgo Udalarena eta Andoaingo Udaleko talde sozialistarena.

7.- 2023ko urtarrilaren 30ean, Batzarrak alegazio horiek ebatsi, estatutuak aldatzeko proiektua onetsi eta espedientea Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea erabaki zuen, dagokion txostena egin zezan.

8.- Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena egin zuen, nahitaezkoa eta ez loteslea, 2023ko martxoaren 20an.

9.- 2023ko apirilaren 3an, Tolosaldeko mankomunitateko Batzarrak erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak bere txostenean proposatutako aldaketa gomendioak txertatu ondoren, mankomunitateko udaletara igortzea, beren udalbatzek behin betiko onetsi ditzaten.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Eskumena

Udalbatzak du eskumena, estatutuen aldaketa onartzeko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. Artikuluaren b) eta p) atalek eta Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuen 60 artikuluak xedatutakoaren arabera.

Aldaketa hau onartzeko gehiengo osoa behar da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 g) artikuluaren arabera.

Araudia

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: 22, 44 eta 47 artikuluak.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskadiko Autonomia Estatutua onartzen duena: 37.3 c) artikulua.

Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa: 101-103 artikuluak.

Azaroaren 27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Osoko Erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foro organoen arteko harremanei buruzkoa: 7 a) 3 artikulua.

Apirilaren 10eko 6/2007 Foru Araua, Gipuzkoako lurralde historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituena: 1-17 artikuluak; 29 eta 30 artikuluak, besteak beste.

Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuak 60 artikulua.

128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten Toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena 3.3 d) 1 artikulua.

Gaiaren azterketa

Estatutuak aldatzeko arrazoiak dira:

1.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauari egokitzea, bere xedapen iragankor bakarrak agindu bezala.

2.- 56. artikulua aldatzea, udalen ekarpenak kalkulatzean erabiltzen diren irizpideak estatutuetan islatzeko.

3.- Genero ikuspegia txertatzea: idazketa aldetik gaztelaniazko bertsioa bere osotasunean berrikusi eta, oro har, gizonezko eta emakumezkoen berdintasuna arautzeko legeak isla izan dezan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeko txostena eman du.

Prozedura

Bi araudi uztartu behar dira:

Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen 60. Artikulua eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko, 6/2007 Foru araua.

Bi araudiak uztartuta Tolosaldeko mankomunitateko estatutuen aldaketa prozedura ondorengoa da:

a) Estatutuen aldaketa proposatzea Batzarrari dagokio, ukituko duen alderdia zehaztuz.

b) Aldaketa proiektua egitea Batzorde iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaioke proiektua egiteari.

c) Batzarrak onartzea, gehiengo soilez, eta gainera, gehiengo soil horrek, gutxienez, Mankomunitateko udalen erdia ordezkatu beharko du.

d) Erabakia jendaurrean erakustea hilabeteko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta doakien udaletxeetako iragarki tauletan erakutsiz.

e) Batzarrak erabakiko ditu alegazio, eragozpen eta oharpen horiek.

f) Horren ondoren, estatutuen aldaketa Foru Aldundiaren iritzira makurtuko da epe berdinean, eta hori iragaten bada iritzirik eman gabe aldekotzat hartuko da.

g) Txosten hori egin bada edo horretarako arauzko epea iragan bada, edukia ikusi ondoren sustatzaileak beharrezkotzat jotzen badu, dei egingo dio berriro Batzarrari estatutuetan antzeman diren irregulartasunak zuzentzeko.

h) Mankomunitateko udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kidetariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik.

i) Estatutuen testu osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Tolosaldeko mankomunitateak bete ditu estatutuen aldaketarako prozedura betekizunak.

Idazkariak egin du aldez aurreko txostena, 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten Toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duenak, 3.3 d)1 artikuluan eskatzen duena.

PROPOSAMENA

Lehenengoa: Tolosaldeko mankomunitatearen estatutuen aldaketa onartzea, artikuluz artikulu, genero ikuspegia txertatuz gaztelaniazko bertsioan.

Zehazki, ondorengo artikuluak aldatzea onartzen da:

ARTIKULUA	ALDAKETA PROPOSAMENA	ONARTUA GEHIENGO OSOZ	EZ ONARTUA
5. artikulua	5. artikuluari eransten zaio: Hala nola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalaz gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua aplikatuko zaio.	X	
9. artikulua	Mankomunitatearen egoitza Tolosako Plaza Zaharra 6 zk.an dago, Gipuzkoa. Bere egoitza elektronikoa: tolosaldekomankomunitatea.eus delarik.	X	

11. artikulua	Eransten zaio 4. Atala: Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.	X	
16. artikulua	Eransten zaio 3. Atala: 3. Mankomunitatea bere organoen osaeran emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatzen saiatuko da, non sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza izango duen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean adierazitakoaren arabera.	X	
18. artikulua	Artikuluaren hasierari eransten zaio: Batzarra udalerri mankomunatu bakoitzeko ordezkari banak osatzen du	X	
19. artikulua	19. artikuluari eransten zaio: Udalerri bakoitzaren parte hartzeak eguneratuko dira mankomunitatearen organoak eratzen diren bakoitzean.	X	
23. artikulua	d) atala aldatzen da: d) Estatutuen aldaketen onespena	X	
25. artikulua	5. azpiatala eransten zaio: 5. Batzorde Iraunkorreko kideak izendatzeko, hautagaiak gehiengo osoz onartu beharko dira lehen bozketan, gehiengo soilarekin bigarren bozketan, eta adostasunik ez badago, lehendakariak hautatuko ditu.	X	
46. artikulua	3. azpiataleko a) puntua aldatzen da: a) Estatutuen aldaketa proiektua	X	
55. artikulua	55. artikuluari eransten zaio: Estatutu hauetako 11.2 atalean aurreikusitakoa betez ematen diren zerbitzu berriak, Udalen eskariz, eskatzaileek soilik ordaindu beharko dituzte. Bat baino gehiago izango balira, zenbatekoa interesaturiko Udalen artean banatuko da. Mankomunitateak bermatuko du zerbitzu berriak emateak ez diela eragingo horietara atxikitzen ez diren udalei.	X	

56. artikulua	56. artikuluaren 2 eta 3 atalak aldatzen dira eta 4 eta 5 atalak eransten zaizkio 2.- Udalen ekarpenak udalerri bakoitzaren biztanle kopuruaren proportzioan eta udal bakoitzak eskatutako bilketa sistemaren arabera kalkulatuko dira. Biztanle kopuruaren kalkulurako, Mankomunitateko kide diren udalerrietako erroldetan ofizialki erregistratutako biztanle-kopurua erabiliko da. Kasuan kasuko udal-idazkariek ziurtagiri bat egingo dute urtero, eta ziurtagiri horretan adieraziko dute zein den dagokion zifra, idazkari guztientzat zehazten den egun zehatzean. 3.- Zerbitzu bakoitzari dagozkion udalen ekarpenak kalkulatzeko irizpideak, erak eta epeak garatu eta zehaztuko ditu Batzarrak botoen bi hereneko gehiengoarekin, gainera gehiengo horrek, gutxienez, mankomunitateko udalen bi heren ordezkatu beharko du. 4.- Urteko aurrekontu proiektuak udalerrien urteko ekarpen finko eta aldakorrei buruzko azterlana jasoko duen eranskina barneratuko du. 5.-Ez ordaintzeak arduradun den udala eskubideez gabetzea ekarriko du. Mankomunitateak ez dizkio bere zerbitzuak emango horrelako kasuan dagoen Udalari bere obligazioak betetzen ez dituen bitartean. Horretarako, Batzorde Iraunkorrak diru sarrera egin dezan errekerituko dio Udalari eta hiru hilabeteko epean hala ez badu egiten, eta ezinbesteko arrazoirik ez badu, Mankomunitateak ez dio zerbitzurik emango egun hartatik aurrera. Eskubideez gabeturiko Udalen ordezkariek ezin esku hartuko dute botazioetan, eta kasu bakoitzean beharko diren gehiengoen kontaketan ere ez dira kontuan	X	

	hartuko. Udal horiek Batzorde Iraunkorreko partaide badira, eskubide gabe geratzearen ondorioz, Batzorde horretan dituzten eskubideak baliorik gabe geldituko zaizkie.		
60. artikulua	60. artikulua honela idatzita geldituko da: Estatutuen aldaketa burutzeko jarraitu beharreko prozedura ondokoa izango da: - Ekimena ukituko duen alderdia zehaztuz dagokio: Lehendakaritzari edo Batzarreko legezko ordezkari kopuruaren herenari edo Batzorde iraunkorrari edo guztira zuzenbideko biztanleria 25.000 biztanle edo gehiagokoa daukaten bost Udali gutxienez. - Aldaketa proiektua egitea Batzorde Iraunkorrari dagokio. Hala ere, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien erdiak ere ekin diezaioke proiektua egiteari. - Batzarrak estatutuen proiektua onartuko du 46.3 atalean aurreikusitako gehiengoz. - Proiektua onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta dagokion udaletako iragarki oholean jarriko da ikusgai hilabeteko epean. - Behin publikaturik Foru Aldundira bidaliko da honek informa dezan. Hilabeteko epean honen inguruko iritzirik ematen ez baldin badu, hau aldekotzat hartuko da. - Estatutuak Udal guztietako Udalbatzek onetsiko dituzte behin betiko, kidetariko legezko kopuruaren gehiengoak aldeko botoa emanik. - Erabakia onartuta, estatutuen testu	X	

	osoa, bere aldaketekin, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.		
61. artikulua	61. Artikulua ezabatzen da.	X	
62. artikulua	Eransten zaio 6. Atala: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.	X	
63. artikulua	63. artikuluari eransten zaio: Behin hau eginda, 6/2007 foru arauaren 10.3 artikuluaren arabera banatzeak, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak betetzea ekarriko du.	X	
64. artikulua	64. artikuluari eransten zaio: Desegiteko, 6/2007 foru arauaren 12 artikuluaren arabera, estatutuak aldatzeko ezarritako arauak bete beharko dira.	X	
65. artikuluari	1. atalari eransten zaio: Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu beharko da.	X	
Bigarren xedapen gehigarria	3. atala eransten zaio: Ondoren estatutuen aldaketa eman beharko da.	X	
Zazpigarren xedapen gehigarria	Zazpigarren xedapen gehigarriari eransten zaio: Hortaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalez Gaindiko Erakundeak Arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 foru araua ere aplikatuko da.	X	

Bigarrena.- Tolosaldeko mankomunitateari bidaltzea estatutuen aldaketa onartzen duen osoko bilkuraren erabakiaren ziurtagiria.

BOZKETA: Aho batez onartu da.

SEIGARRENA.- <u>TOLOSALDEA GARATZENEKIN TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEKO ZERBITZUEN KONTRATAZIOA EGIKARITZEKO ENKARGUA BERRESTEA</u>

23/505 ALKATETZA EBAZPENA

Tolosaldea Garatzen SA elkarteari, ANDRAGORA, Tolosaldeako Emakumeen Etxeko programak eta zerbitzuak dinamizatu, diseinatu, egin eta garatzeko, zerbitzuen kontratazioa egikaritzeko enkargua.

I. Aurrekariak

1º) Lizartzako Udalak Tolosaldea Garatzen SA merkatal enpresa Udalaren bitarteko propio izendatzea onartu zuen, Sektore Publikoko Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritako baldintzak betez, izendapen-akordioarekin bat egiten duten eskualdeko beste udal batzuekin batera.

2º) Tolosaldea Garatzen SA merkataritza-elkarteak, A-20500229 IFK, iraupen mugagabea, eta Tolosan Lehiberri zentroan 1 zenbakian du bere egoitza. 1994ko uztailaren 27an eratu zen Tolosan, Jose Manuel Domingo Serrano notarioak emandako eskritura publiko baten bidez; eskritura horrek 1.275 protokolo zenbakia du, eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago 1.488. liburukiko 166. folioan, SS-9710, orrialdea, 1go inskripzioan.

Merkataritza-sozietatearen Batzar Nagusiak 2022ko abenduaren 12an egindako ez-ohiko bilkuran aldatu zituen estatutuetako 3.bis Artikuluan ezarritakoaren arabera,

"*TOLOSALDEA GARATZEN SA elkartea, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo udalerrien Bitarteko Propio edo/eta Zerbitzu Teknikoa da.*

Hori dela eta udalerriek bitarteko propio duten sozietatearekin dituzten harremanek izaera instrumentala eta ez-kontratuzkoa dute, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (9/2017 Legea) 32. artikuluan aurreikusten diren mandatuen bidez antolatu ahalko dira; horrenbestez, ondorio guztietarako, barne eta mendeko izaerakoak dira.

Botere adjudikatzaile horiek Sozietateari jardueraren bat egiteko aginduz egiten dioten jakinarazpena jarduera horri ekiteko agindua izango da; hala ere, 9/2017 Legearen 32.6.b) artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Emandako zerbitzuengatik konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: sozietateak eginiko mandatuaren xede diren jardueretarako mandatua egiten duen botere adjudikatzaileak onetsitako tarifak, eta Estatuak erregelamenduz erabakitzen duen moduan. Horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatzen diren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, kostu hori txikiagoa denean azpikontratatutako jarduerei tarifak aplikatzetik heldu dena baino.

Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoitzitako unitateak egiteko benetako kostu guztiak jasotzeko moduan kalkulatuko dira. Mandatuaren tarifak edo konpentsazioak mandatuko prestazioaren balioa estali beharko du, eta hura kalkulatzeko, zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak izan beharko dira kontuan. Tarifek inolaz ere ez dituzte onura-marjinak izango, eta haietan likidazio partzialak egin ahalko dira ekitaldi bakoitzaren kontura, baina, halere, behin betiko likidazioa egingo da.

TOLOSALDEA GARRETZEN SAk ezingo du parte hartu esandako Udal organoek deitutako enkante publikoetan, nahiz eta agindu ahalko dion enkantearen xede zen prestazioa emateko, lizitatzailerik aurkezten ez bada.

Urte anitzeko mandatuen kasuan, likidazioa egingo da aurrekontu-ekitaldi bakoitza ixtean, nahiz eta jarduketa amaitua aitortu eta egiaztatu egingo den legez ezarritako baldintzetan, eta dagokion dokumentua emango da, eta likidatu egingo da, gehienez hurrengo hiru hilen barruan."

3º) Lizartzako Udalak, Tolosaldeako eskualdeko udalekin batera, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen lan taldeak aurkeztutako hurrengo konpromisoak onartu zituen:

> *1.- Onartzea Talde Eragilean sortutako eta Emakumeen Gune Zabalean onartutako Emakumeen Etxearen egitasmoaren zehaztapenaren dokumentua.*
>
> *2.- Babestea Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa, balizko aldaketa politikotik harago, eta prozesua nahiz emaitza alderdi politikoen interesen logikatik kanpo mantentzea.*
>
> *3.- Sozializatzea eta ikusgarri egitea herrian Tolosaldeko Emakumeen Etxearen inguruan egin den prozesua nahiz emaitza bera (Udalaren web orriaren, sare sozialen edo udal aldizkariaren bidez zabaltzea).*

4.- Baliabide ekonomikoak eta gizabaliabideak jartzea, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen jarduna garatu ahal izateko, berariazko aurrekontu-partida bat izendatuta eta hornituta.

2021eko martxoan, II. Prozesu parte-hartzailea martxan jarri zen, lehen prozesuko zenbait gairi jarraipena emateko eta sakontzeko, eta erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak; kudeaketa- eta funtzionamendu-eredu bat; 24 udalek batera finantzatzeko proposamena; etxean eskainiko diren jarduerak eta zerbitzuak; dinamizazioa, eta abar zehazteko. Eta, azkenik, Etxearen Elkartea sortu zen, eta, bozketa baten bidez, ANDRAGORA Tolosaldeko Emakumeen Etxea izena adostu zen.

ANDRAGORA Tolosaldeko Emakumeen Etxearen helburu orokorra emakumeak elkartzeko, eztabaidatzeko, ikasteko eta ahalduntzeko gune segurua eta kolektiboa izatea izango da, agenda feminista politikaren ardatz nagusian kokatu ahal izateko, feminismoaren helburu politikoak txertatuz, desberdintasunak eta izan ditzakeen elkarguneak kontuan hartuz, inplikatutako eragileekin gaur egungo agenda zabalduz eta beharrezko tresnak eta metodologiak berrituz. Beste helburu bat ere bada laguntzea eta prozesu estrategiko eta eraldatzaileagotarantz aurrera egitea, Tolosaldeko eskualdeko bizitzako esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko.

Horretarako, ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxean garatuko diren jarduerak eta programak dinamizatu, diseinatu eta garatzeko zerbitzua arautzeko beharrezkoak diren ekintzak burutu behar dira.

II Zuzenbidezko Oinarriak

I.- Tolosaldea Garatzen SA, beraz, Tolosako Udaleko baliabide pertsonifikatua da, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, ezarritakoaren arabera.

Horregatik, jasotako agindua egikaritzeko egin behar dituen negozio juridiko guztiak SPKLren pean egongo dira dagozkion zehaztapenekin; lanak burutuko dituen entitatearen izaeraren, balio zenbatetsiaren eta motaren arabera. Norbere baliabidea botere esleitzaile bat ez denean, SPKLren Hirugarren Liburuaren I. Tituluan dauden

arauak aplikatuko zaizkio. Halaber, ez dago norbere baliabideei ezarritako % 50eko balio mugarik, Legeak salbuetsi egiten dituelako zuzenbide pribatuko elkarte bati aginduak ematen zaizkionean, beti ere titularitatea publikoa denean eta baita bere kapitala ere; hau da Tolosaldea Garatzen SA merkataritza-sozietatearen kasua.

II.- Tolosaldea Garatzen SAk bere estatutuetan jasotzen dituen funtzioen artean, orohar, gizarte xedea betetzeko beharrezkoak diren iharduera guztiak garatzea jasotzen da, horretarako eskaera egiten zaionean, Elkarteak laguntza teknikoa eskainoi die udalei, bere gizarte-xedearen barruko arazoetan.

Lizartzakoko Udaleko Bitarteko Idazkariak aurretik lege-txostena eman du.

Azaldutako guztiagatik,

EBAZTEN DUT

LEHENGOA: Tolosaldea Garatzen SA merkataritza sozietateari ANDRAGORA, Tolosaldeako Emakumeen Etxeko programak eta zerbitzuak dinamizatu, diseinatu, egin eta garatzeko, zerbitzuak kontratazioa egikaritzeko enkargua agintzea. Egikaritze hori datozen klausulek arautuko dute.

KLAUSULAK

Lehena. Enkarguaren xedea.

Agindu honen bidez, Lizartzako Udalak, Tolosaldea Garatzen SA merkataritza sozietateari eskatzen dio ANDRAGORA, Tolosaldeako Emakumeen Etxeko programak eta zerbitzuak dinamizatu, diseinatu, egin eta garatzeko, zerbitzuen kontratazioa egikaritzeko enkargua.

Zerbitzuaren helburua da ANDRAGORA, Tolosaldeko Emakumeen Etxean garatuko diren jarduerak eta programak dinamizatu, diseinatu eta garatzeko zerbitzua arautzeko kontratazioa egikaritzea.

Zerbitzuak hiru atal edukiko ditu: ANDRAGORA, Tolosaldeako Emakumeen Etxeko programak dinamizatu, diseinatu, egin eta garatzeko, zerbitzuak kudeatu; Emakumeei zuzendutako aholkularitza juridikoa; eta emakumeei zuzendutako aholkularitza Psikologiko banakako eta kolektibo zerbitzua.

Zerbitzuak honela emango dira:

a) Tolosaldea Garatzen erakundeak bereak ez diren bitartekoen bidez emango dizkie dinamizazio, laguntza psikologiko eta laguntza juridikoko zerbitzuak enkargua sinatu duten udalerrietako emakumeei. Zerbitzu horiek enkargo-orri honi erantsi zaion I. eranskinean deskribatzen dira. Era berean, aipatutako zerbitzuen lizitaziorako oinarri izango den azterketa ekonomikoa II. eranskin gisa gehitu da.

b) Tolosaldea Garatzen-ek bere baliabide propioekin kudeatuko du mandatu hau sinatu duten udalek egindako ekarpenen kobrantza, aurreko atalean aipatu diren zerbitzuengatik. Kontzeptu horretan sartuko da, halaber, jarduera horiek eragindako eraikinaren mantentze-gastuen (elektrizitatea, berokuntza, etab.) zati proportzionala udalei kobratzeko kudeaketa. Aipatutako mantentze-gastuak hasiera batean Tolosako Udalak ordainduko dituenez, Tolosako Udalak horiek ordaintzeko beharrezko informazioa emango dio Tolosaldea Garatzen sozietateari, eta sozietateak, enkargua sinatu duten gainerako udalerriei kobratu ondoren, dagokion kopurua ordainduko dio Tolosako Udalari. Mantenimendu gastuak izeneko taula, dokumentu bat erantsi da, II eranskinean, mantentze-gastuen aurreikuspena egiten duena. Kasu guztietan, udalen ordainketa-betebeharrak benetan egindako gastuak kontuan hartuta ezarriko dira.

Bigarrena. Egikaritzearen baldintzak

Tolosaldea Garatzen SA elkarteko kontratazio-organoek kontratua egikaritzeko baldintza bereziak ezar ditzakete, betiere haien xedearekin lotuta badaude, SPKLren 145. artikuluan jasotako zentzuan, zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak ez badira eta erkidegoko zuzenbidearekin bateragarriak badira.

Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez badira, zehapenak ezarriko dira edo baldintza hauek funtsezko kontratu betebehartzat hartuko dira SPKLren 211. artikuluaren f) letran aipatzen diren ondorioetarako.

Kontratua egikaritzean esku hartuko duten azpikontratistek ere kontratua egikaritzeko baldintza berezi horiek guztiak bete beharko dituzte. Kontratu hau egikaritzeko baldintza bereziak honakoak dira:

Hizkuntza baldintzak

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hori garatzen duten arauek erregulatua.

86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duenak, bere 18. artikuluan, euskararen erabilera normalizatzeko planetan bete beharrekoak azaltzen ditu, haien artean hurrengo hau: “18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen”.

Enpresa esleipendunak administrazio kontratugileak dauzkan hizkuntza arauen arabera jokatuko du kontratupean dauzkan zeregin guztietan. Horrela, elkarren arteko harremanak, bai ahozkoak bai idatziak, administrazioak duen lan hizkuntzara egokituko dira.

Zehazki, esleipendunak baldintza linguistiko hauek bete beharko ditu:

Errotuluak, oharrak eta seinaleak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo/eta maiz erabiliak direnean edo/eta ekintzaren izaerak eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean. Aurreko kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, beti ere Euskara zerbitzuarekin aldez aurretik elebitasun formula adostuta.

Esleipendunek euskara edota ele biek erabiliko dituzte megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketetan eta ekoiztutako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere. Ele bietako aukera egin behar izanez gero euskarari lehentasuna emanda, baina

testua euskara hutsean idatziko da kasu hauetan: hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, esanahia argitzen duen piktograma batek lagundurik dagoenean, euskarazko hitzak ezagunak direnean (Udaltzaingoa, sarrera, irteera...) eta ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak edo/eta jasotzaileen berezitasunek hala eskatzen dutenean.

Kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden hirugarrenek kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da, ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak edo/eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean izan ezik, kasu hauetan euskaraz egingo baita. Ahozko zein idatzizko harremanak euskaraz burutzeko herritarrek inolako oztoporik ez dutela izango bermatu beharko da, horretarako modurik eraginkorrena delarik kontratu-emailearen langile guztiak elebidunak izatea. Beraz, herritarrekin harreman zuzena izango duten langileak elebidunak izango dira halabeharrez eta helburu hori lortze aldera, udalean bertan lan egiteko bete beharko lituzketen baldintzak bermatu beharko dituzte hizkuntza eskakizunei dagokienean.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabiliko dira normalean: behar duen hizkuntza gaitasuna ziurtatzen duen agiria edota udaleko Euskara zerbitzuak jarritako euskara froga gainditzea. Azken aukera hau ahalik eta gutxienetan erabiliko da, gaur egun hizkuntza agiriak izateko aukera ugari baitago.

Berariaz inolako aukerarik egin ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dizkien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne, ezagutzera ematen den ekintzaren izaerak edo/eta hartzaileen berezitasunek eskatzen dutenean izan ezik, kasu hauetan euskaraz egingo baita. Edozein dela kasua ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake euskara aukeratzeko eskubidea.

Administrazio kontratu-egilearekin kontratua gauzatzeko egiten diren harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da "normalean euskara erabiltzea": a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakiten langileek euskaraz egingo dute, hasiera batean, kontratua gauzatzeko zereginak direla-eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen bazaio kontratua gauzatzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak,

kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta, b) komunikazio idatziak euskara hutsean egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne.

Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz

Aipatutako baldintza guztiak funtsezko kontratu- betebeharrak dira.

Enpresa adjudikaziodunaren lan eskubideak eta betebeharrak

1.- Kontratuak derrigorrez bete beharko ditu lan- arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarri diren legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak.

Kontratua indarrean den bitartean, kontratuaren hasierako plantillan aldaketak gertatzen badira (bai erretiro, heriotza, borondatezko baja, kaleratze, aldi baterako ezintasun, ezintasun iraunkor eta abarrengatik, bai zerbitzuaren beharrengatik), baja hori bete aurretik adjudikaziodunak Tolosaldea Garatzen SAri horren berri emango dio.

Adjudikaziodunaren ardura osoa izango da bere zerbitzuan izango dituen langileen kontratazioa eta horien prestakuntza Tolosaldea Garatzen SAk ez du inongo harreman juridikorik izango adjudikaziodunarentzat lanean diharduten langileekin, ez agiri hauen xede den kontratua indarrean den bitartean ez kontratua bukatu ondoren ere.

2.- Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatu zaien adierazi beharko dute lizitatzaileek, adjudikazioa lortzen badute.

Halaber, behin kontratua adjudikatu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia ematera behartuta egongo dira.

3.- Hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzen den denbora guztian, betiere langileari dagokion

lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, txikiagoa izan.

Berdintasuna. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko eskubide eta betebeharrak

1.- Enpresa adjudikaziodunak nahitaez beteko ditu honako arau hauek: 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa;

2.- Zerbitzua garatuko duten talde lizitatzaileko pertsona guztiek emakumeenganako eta gizonenganako jarrera errespetagarria eta berdinzalea edukiko dute une oro, eta inoiz ez dute izango jarrera desatsegin, mingarri edo diskriminatzailerik, sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo sexu- orientazioagatik.

Enpresa adjudikaziodunak komunikazio ez- sexista eta inklusiboa egingo du bere dokumentazioan, publizitatean, irudietan eta materialetan.

3.- Beste neurri batzuk hartzeari utzi gabe eta berdintasun arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki, kontratuaren adjudikaziodun gisa izendatutako pertsona juridikoak, bere estatus juridikoa edozein izanda ere, derrigorrez bermatu beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta arreta berezia jarriko du soldata-diskriminazioan.

Bigarrena. Epea.

Enkargu hau, akordioa jakinarazten den egunetik hasiko da, eta zerbitzua esleituko da 2023ko irailetik 2025eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da.

Zerbitzua atzeratzen, luzatzen edo indarrean jarraitzen badu, mandatu honen indarraldia luzatuko da, betiere enkarguaren oreka ekonomikoa aldaketarik gabe mantentzen bada.

Hirugarrena. Enkarguaren justifikazioa eta ordaintzeko era.

Lizartzako Udalak ordainduko ditu enkargu honek agindua jaso duen erakundeari eragin dizkion gastuak, bere partaidetzaren arabera. Guztizko kostua 375.726 eurokoa izango

da, beraz Lizartzako Udalak 6.122,10 euroko gastua edukiko du. Gastu hori 3 urtetan banatzen da: 2023 (iraila-abendua), 2024 eta 2025. Aldi berean, gastuak dinamikotan eta komunetan banatzen dira. Gastu dinamikoen %2,21 dagokio ordaintzea Lizartzako udalari, eta komunen %1,23. 2023ko udal aurrekontuan, dagokion aurrekontu aplikazioan jasota dago aipaturiko gastu horiei aurre egiteko zenbatekoa.

Era berean, aurrekontuen gaineko eskumena duen organoak konpromisoa hartu du etorkizunean beharrezkoak diren kredituak erreserbatzeko dagozkion ekitaldietako aurrekontuen barruan.

Tolosaldea Garatzen, S.A.k, dagozkion gastuen tarifak igorriko dizkio Lizartzako udalari. Dokumentazio hori egiaztatu ondoren, Lizartzakoko Udalak, urteroko ekainaren 30eko epean ordainduko du horri dagokion zenbatekoa.

Proiektua bukatutakoan, aginduaren likidazioa egingo da, eta horretarako aurretik, Tolosaldea Garatzen SA elkarteak, enkargatutako jarduerak justifikatzeko memoria eta jarduera horiek izandako gastuak justifikatzeko txostena aurkeztu beharko du.

Laugarrena. Enkarguaren irismena eta izaera.

Enkargu hau Lizartzako Udalak bitarteko propio pertsonifikatu bati egindako enkargua da, baina ez da kontratutzat hartzen, eta sektore publikoko erakundeen arteko lankidetza bertikaleko sisteman gauzatzen da, bitarteko pertsonifikatua erabiltzean datzana.

Tolosaldea Garatzen SA erakundeak autonomia osoz eta bere antolaketa-arauen arabera emango eta garatuko ditu enkargatutako zerbitzuak eta jarduera materialak, baina Lizartzako Udaleko arlo eskudunetatik datozen beharrezko jarraibide teknikoak errespetatuz, betiere gutxiengo esku-hartzearen printzipioaren eta besteren antolaketarekiko errespetuaren partizioaren barruan.

Bosgarrena. Enkarguaren suntsitzea.

Mandatu hau aldez aurretik amaitu ahal izango da interes publikoko arrazoiengatik, eta Tolosaldea Garatzen SAk ez du inolako kopururik sortuko kalte-ordain gisa, Lizartzakoko Udalaren ebazpen baten bidez. Nolanahi ere, ebazpena emateko unean egikaritzen ari diren jarduketek aurrera jarraitu ahal izango dute.

Seigarrena. Araubide juridikoa.

Berezko bitartekoari egindako enkargu honek SPKLren 32. artikuluan aurreikusitako izaera du, eta, beraz, artikulu horretan eta SPKLren gainerako artikuluetan adierazitakoaren arabera arautuko da, bitarteko propioei egindako enkarguei aplikatzekoa denean (44., 50. eta 63. artikuluak).

Baliabide propio pertsonifikatuen araubide juridikoari buruzko SPKLren azken xedapenetatik laugarrenaren 3. apartatuan adierazitakoaren arabera, lege horretan aurreikusten ez den kasuetan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

Zazpigarrena. Eztabaiden ebazpena

Lizartzako Udalak nahitaez ebatziko ditu enkarguaren ondorioz sortzen diren interpretazio- eta betetze-arazoak, eta, era berean, egin beharreko jarduketak zehaztu edo aldatuko ditu, betiere haren xedearen funtsa aldatzen ez bada.

Zortzigarrena. Enkarguaren publizitatea

Mandatu hau Lizartzako Udalaren Gardentasun Atarian argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) letran ezarritakoa betez.

Era berean, eta SPKLren 63.6 artikuluan adierazitakoaren arabera, zenbatekoa kontuan hartuta, Tolosaldea Garatzen, S.A.ko kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Tolosaldea Garatzen, S.A. merkataritza-sozietateari, Kontuhartzailetzari eta Idazkaritza Departamentuari.

Lizartzan, 2023ko apirilaren 28an.

BOZKETA: Aho batez onartu da.

ZAZPIGARRENA.- TOLOSALDEA GARATZEN SA ELKARTEARI, LIZARTZAKO UDALEAN TOKIKO GARAPEN IRAUNKORREKO POLITIKAK SUSTATZEKO ZERBITZUAREN ENKARGUA BERRESTEA.

Lizartzako Udaleko alkate akordioa, Tolosaldea Garatzen SA elkarteari, Lizartzako Udalean Tokiko Garapen Iraunkorreko Politikak sustatzeko zerbitzuaren enkargua onartzen duena.

I. Aurrekariak

1º) Lizartzako Udalak, Tolosaldea Garatzen SA Lizartzako Udalaren bitarteko propio izendatzea onartu zuen, Sektore Publikoko Kontratazioa arautzen duen 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritako baldintzak betez, izendapen-akordioarekin bat egiten duten eskualdeko beste udal batzuekin batera.

2º) Tolosaldea Garatzen SA merkataritza-elkarteak, A-20500229 IFK, iraupen mugagabea, eta Tolosan Lehiberri zentroan 1 zenbakian du bere egoitza. 1994ko uztailaren 27an eratu zen Tolosan, Jose Manuel Domingo Serrano notarioak emandako eskritura publiko baten bidez; eskritura horrek 1.275 protokolo zenbakia du, eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago 1.488. liburukiko 166. folioan, SS-9710, orrialdea, 1go inskripzioan.

Merkataritza-sozietatearen Batzar Nagusiak 2022ko abenduaren 12an egindako ez-ohiko bilkuran aldatu zituen estatutuetako 3.bis Artikuluan ezarritakoaren arabera,

> "*TOLOSALDEA GARATZEN SA elkartea, Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkilgo udalerrien Bitarteko Propio edo/eta Zerbitzu Teknikoa da.*
>
> *Hori dela eta udalerriek bitarteko propio duten sozietatearekin dituzten harremanek izaera instrumentala eta ez-kontratuzkoa dute, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (9/2017 Legea) 32. artikuluan aurreikusten diren mandatuen bidez antolatu ahalko dira; horrenbestez, ondorio guztietarako, barne eta mendeko izaerakoak dira.*

Botere adjudikatzaile horiek Sozietateari jardueraren bat egiteko aginduz egiten dioten jakinarazpena jarduera horri ekiteko agindua izango da; hala ere, 9/2017 Legearen 32.6.b) artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

Emandako zerbitzuengatik konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: sozietateak eginiko mandatuaren xede diren jardueretarako mandatua egiten duen botere adjudikatzaileak onetsitako tarifak, eta Estatuak erregelamenduz erabakitzen duen moduan. Horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatzen diren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, kostu hori txikiagoa denean azpikontratatutako jarduerei tarifak aplikatzetik heldu dena baino.
Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoitzitako unitateak egiteko benetako kostu guztiak jasotzeko moduan kalkulatuko dira. Mandatuaren tarifak edo konpentsazioak mandatuko prestazioaren balioa estali beharko du, eta hura kalkulatzeko, zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak izan beharko dira kontuan. Tarifek inolaz ere ez dituzte onura-marjinak izango, eta haietan likidazio partzialak egin ahalko dira ekitaldi bakoitzaren kontura, baina, halere, behin betiko likidazioa egingo da.

TOLOSALDEA GARATZEN SAk ezingo du parte hartu esandako Udal organoek deitutako enkante publikoetan, nahiz eta agindu ahalko dion enkantearen xede zen prestazioa emateko, lizitatzailerik aurkezten ez bada.

Urte anitzeko mandatuen kasuan, likidazioa egingo da aurrekontu-ekitaldi bakoitza ixtean, nahiz eta jarduketa amaitua aitortu eta egiaztatu egingo den legez ezarritako baldintzetan, eta dagokion dokumentua emango da, eta likidatu egingo da, gehienez hurrengo hiru hilen barruan."

3º) Lizartzako Udalak udal kudeaketa garapen jasangarriaren printzipioetara egokitzeko ekimenak, programak eta estrategiak aurrera eraman behar ditu. Garapen iraunkorra, hain zuzen ere, hauxe da: beste gune geografiko batzuen edo etorkizuneko belaunaldien garatzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe uneko eta etorkizuneko tokiko beharrak asebetetzea.

Lizartzako udala neurri txikikoa da giza eta ekonomi baliabide urriekin, eta horren aurrean tokiko garapen jasangarriko proiektuak bere kabuz garatu eta behar bezala

ezartzeko modurik ez du. Ondorioz, Tolosaldea Garatzen, S.A., eskualdeko garapen agentziara jo du zerbitzu hori udal desberdinen artean partekatu ahal izateko beharrezkoak diren teknikariak kontratatzeko eta haien bidez zerbitzua bermatzeko eskatuz.

Tolosaldea Garatzen, S.A.k eskualdeko udal guztien artean sortutako erakundea izanik, eta bere gizarte xedean aurreikusitakoari jarraiki, haien arteko zerbitzu partekatuak sustatzen ditu, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta garapen iraunkorreko proiektuak garatzeko plataforma moduan.

II Zuzenbidezko Oinarriak

I.- Tolosaldea Garatzen S.A., beraz, Lizartzako Udaleko baliabide pertsonifikatua da, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora, ezarritakoaren arabera.

Horregatik, jasotako agindua egikaritzeko egin behar dituen negozio juridiko guztiak SPKLren pean egongo dira dagozkion zehaztapenekin; lanak burutuko dituen entitatearen izaeraren, balio zenbatetsiaren eta motaren arabera. Norbere baliabidea botere esleitzaile bat ez denean, SPKLren Hirugarren Liburuaren I. Tituluan dauden arauak aplikatuko zaizkio. Halaber, ez dago norbere baliabideei ezarritako % 50eko balio mugarik, Legeak salbuetsi egiten dituelako zuzenbide pribatuko elkarte bati aginduak ematen zaizkionean, beti ere titularitatea publikoa denean eta baita bere kapitala ere; hau da Tolosaldea Garatzen SA merkataritza-sozietatearen kasua.

II.- Tolosaldea Garatzen S.A.k bere estatutuetan jasotzen dituen funtzioen artean, orohar, gizarte xedea betetzeko beharrezkoak diren iharduera guztiak garatzea jasotzen da, horretarako eskaera egiten zaionean, Elkarteak laguntza teknikoa eskainiko die udalei, bere gizarte-xedearen barruko arazoetan.

Azaldutako guztiagatik,

EBAZTEN DA

LEHENGOA: Tolosaldea Garatzen SA merkataritza sozietateari Lizartzako Udalean Tokiko Garapen Iraunkorreko Politikak sustatzeko zerbitzua egikaritzeko enkargua agintzea. Egikaritze hori datozen klausulek arautuko dute.

KLAUSULAK

Lehena. Enkarguaren xedea.

Agindu honen bidez, Lizartzako Udalak, Tolosaldea Garatzen SA merkataritza sozietateari eskatzen dio Lizartzako Udalean Tokiko Garapen Iraunkorreko Politikak sustatzeko zerbitzua egikaritzeko enkargua.

Zerbitzuaren helburua da Lizartzako Udalean modu partekatuan garapen jasangarriaren inguruko ekimenak garatzeko zerbitzua egikaritzea.

Ondorengo funtzioak beteko dituzte teknikariek:

Udal Tokiko Agenda 2030 Ekintza Planen kudeaketa eta ebaluaketa

Garapen Iraunkorreko Tokiko Agenda 2030 ekintza planak txertatzea izango da beraien funtzioetako bat udalerri bakoitzaren lehentasunen arabera. Lehenik eta behin udalaren ardura diren ekintzak hartuko dira kontutan eta hauen ebaluazioa egingo da GFAren eta IHOBEren laguntzarekin eta ondoren, Udal Saila eskualdeko eragile guztien ekintzen ebaluazioa jasotzeaz arduratuko da eta udalerrietako ekintza planen ebaluazioan sartzen da.

Udalerrian orokorrean ingurumen eta landa-garapen proiektuen kudeaketa

Udalaren eta udalerriaren garapenerako interesgarriak izan daitezken proiektuak, diru laguntzak etab. kudeatuko dira: egitasmoak landu, diru laguntzak bilatu eta proiektuak garatu.

Honako funtzioak beteko dituzte udal teknikari partekatuek:

- Ingurumen alorrean udal programak eta ekimenak nahiz jarduerak planifikatu, diseinatu eta kudeatu.
- Landa ingurunearen garapen egokia lortzea helburu duten prebentzio eta sustapen zein sentsibilizazio kanpainak bultzatu.
- Hondakinen kudeaketaren inguruko udal politika eta jarduerak planifikatu, diseinatu eta kudeatu.

- Energia eraginkortasuneko udal politikak gauzatu.
- Mugikortasun jasangarriko politikak gauzatu udalean: Eskualdeko Bizikleta Planaren ezarpena kudeatu.
- Beste erakunde batzuen finantzaketa bilatu eta tramitatu: EVE, GFAko Agenda 21, parte hartzea edo hondakin prebentzioa, EJ- Ingurumen Saila, LEADER-EREIN etab.
- Herri Batzarrak antolatu eta dinamizatu: Herritarren parte hartzea sustatzeko eta herritarren proposamenak jasotzeko eta udalaren parte egiteko.
- Udal batzorde informatzaileak dinamizatu.
- Udal erosketa berdea sustatu.

<u>Bigarrena</u>. Egikaritzearen baldintzak

Mandatu hau egikaritzeko baldintza bereziak honakoak dira:

1 Tolosaldea Garatzen S.A.k Lizartzako udalean garapen iraunkorreko estrategiaren jarraipenean modu partekatuan jardungo duen teknikariaren funtzioak bermatzea:

- Udalaren garapenerako beharrezkoak diren ekintzak sustatu eta dinamizatu, beti ere garapen iraunkorrean oinarrituta.
- Udalerriko Tokiko Agenda 2030 sustatu eta informazioa zabaldu.
- Bere gaiekin bat datozen dirulaguntzen eskaerak bideratu eta jarraipena egin.
- Ekintza planen jarraipena burutu eta errebisioez arduratu.
- Bere kualifikazio profesionalarekin bat datorren beste edozein zeregin, halakorik agintzen badiote.
- Tolosaldea Garatzeneko Udal Saileko arduradunaren ardurapean egongo da, hark sustatutako lan ildoak eta ekintzak bultzatuz.

2 Mandatu honen xede den zerbitzua egikarituko duen ingurumen teknikariak Lizartzako Udalari eskainiko dion zerbitzua beste udal batzuekin partekatuko du, eta horretarako honako baldintzak beteko ditu:

- Dedikazioa: teknikari baten lanaldi osoaren (urtean 1.592 ordu) %15-a, hau da 239 ordu urtean. Dedikazioa aldaezina izango da hitzarmen hau indarrean dagoen artean.

- Zenbatekoa: 39,5 euro orduko.
- Tolosaldea Garatzenek bere udal bazkideei eskainitako zerbitzuak ez daude BEZari lotuta.
- Zerbitzuaren egutegi eta ordutegia Tolosaldea Garatzen, S.A. eta Lizartzako udalaren artean adostuko dira.

3 Lizartzako Udalak bere gain hartuko ditu hitzarmen honen baitan lanean ari den teknikariaren lan kontratutik eratorri daitezkeen kostu eta balizko kalteordain guztiak, beti ere teknikariaren zerbitzuak udal horretan izan duen dedikazio eta iraupenaren arabera.

Hitzarmen honen bitartez teknikarien dedikazioa bakarrik arautzen da. Teknikarien lanetik erator daitezkeen proiektuek tratamendu berezia izango dute eta kasu bakoitzean aurreikusiko da nola kudeatu kostua eta kanpotik lor daitekeen finantzazioa.

<u>Hirugarrena</u>. Epea.

Enkargu hau, akordioa jakinarazten den egunetik hasiko da, eta zerbitzua esleitzen denetik, 3 urtetako iraupena izango du, luzapenak barne.

Zerbitzua atzeratzen, luzatzen edo indarrean jarraitzen badu, mandatu honen indarraldia luzatuko da, betiere enkarguaren oreka ekonomikoa aldaketarik gabe mantentzen bada.

<u>Laugarrena</u>. Enkarguaren justifikazioa eta ordaintzeko era.

Lizartzako Udalak ordainduko ditu enkargu honek agindua jaso duen erakundeari eragin dizkion gastuak, bere partaidetzaren arabera. Lizartzako Udalari dagokion guztizko kostua urtean 9.440 eurokoa izango da. 2023ko udal aurrekontuan, 0000.227.07.420.10 2023 aurrekontu aplikazioan jasota dago dago aipaturiko gastu horiei aurre egiteko zenbatekoa.

Lizartzako udalak, urteroko ekainaren 30eko epean ordainduko du horri dagokion zenbatekoa.

Proiektua bukatutakoan, aginduaren likidazioa egingo da, eta horretarako aurretik, Tolosaldea Garatzen SA elkarteak, enkargatutako jarduerak justifikatzeko memoria eta jarduera horiek izandako gastuak justifikatzeko txostena aurkeztu beharko du.

Bosgarrena. Enkarguaren irismena eta izaera.

Enkargu hau Lizartzako Udalak bitarteko propio pertsonifikatu bati egindako enkargua da, baina ez da kontratutzat hartzen, eta sektore publikoko erakundeen arteko lankidetza bertikaleko sisteman gauzatzen da, bitarteko pertsonifikatua erabiltzean datzana.

Tolosaldea Garatzen SA erakundeak autonomia osoz eta bere antolaketa-arauen arabera emango eta garatuko ditu enkargatutako zerbitzuak eta jarduera materialak, baina Lizartzako Udaleko arlo eskudunetatik datozen beharrezko jarraibide teknikoak errespetatuz, betiere gutxiengo esku-hartzearen printzipioaren eta besteren antolaketarekiko errespetuaren partizioaren barruan.

Seigarrena. Enkarguaren suntsitzea.

Mandatu hau aldez aurretik amaitu ahal izango da interes publikoko arrazoiengatik, Lizartzako Udalaren ebazpen baten bidez. Mandatua amaitzearen ondorioz, zerbitzua eskaintzen duen teknikariaren lan kontratua eten beharko balitz, kontratu-etete horretatik eratorritako kalte ordaina bere gain hartu beharko luke Lizartzako Udalak, zerbitzuaren erabilpenaren proportzioan. Nolanahi ere, ebazpena emateko unean egikaritzen ari diren jarduketek aurrera jarraitu ahal izango dute.

Zazpigarrena. Araubide juridikoa.

Berezko bitartekoari egindako enkargu honek SPKLren 32. artikuluan aurreikusitako izaera du, eta, beraz, artikulu horretan eta SPKLren gainerako artikuluetan adierazitakoaren arabera arautuko da, bitarteko propioei egindako enkarguei aplikatzekoa denean (44., 50. eta 63. artikuluak).

Baliabide propio pertsonifikatuen araubide juridikoari buruzko SPKLren azken xedapenetatik laugarrenaren 3. apartatuan adierazitakoaren arabera, lege horretan aurreikusten ez den kasuetan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

<u>Zortzigarrena</u>. Eztabaiden ebazpena

Lizartzako Udalak nahitaez ebatziko ditu enkarguaren ondorioz sortzen diren interpretazio- eta betetze-arazoak, eta, era berean, egin beharreko jarduketak zehaztu edo aldatuko ditu, betiere haren xedearen funtsa aldatzen ez bada.

<u>Bederatzigarrena</u>. Enkarguaren publizitatea

Mandatu hau Lizartzako Udalaren Gardentasun Atarian argitaratuko da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikuluaren b) letran ezarritakoa betez.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Tolosaldea Garatzen, S.A. merkataritza-sozietateari eta Kontuhartzailetzari.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau udalbatzan berrestea

BOZKETA: Aho batez onartu da.

ZORTZIGARRENA.- <u>BAKE EPAILE IZENDATZEA.</u>

Bake epaile izateko izena emandako pertsona bakarra aho batez bake epaile izendatzea.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 19:30etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK	IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain	Izpta: Nerea Esnaola Galan